



57 urteko langile bat hil da Tubacexeko Amurrioko Aceralava enpresan, bihotzekoak jota

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 08/11/2024

Aurten, gutxienez 52 dira Euskal Herrian hildako langileak.

Gaur goizean, 08:00ak aldera, langile bat hil da Tubacexeko Amurrioko Aceralava enpresan, bihotzekoak jota. 57 urte zituen eta azpikontrata bateko langilea zen, izan ere, Construcciones Jagoba Zamalloa SL enpresarentzat egiten zuen lan. Gaurkoarekin, gutxienez 52 dira urte hasieratik Euskal Herrian hildako langileak.

<https://eh.lahaine.org/57-urteko-langilea-bat-hil>